HERNANIKO EDATEKO UR HORNIDURA SAREAN EMARIA NEURTZEKO EKIPOAK INSTALATZEKO OBRA KONTRATAZIOAREN BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN (NEXT GENERATION EU)

1. XEDEA ETA AURREKARIAK

Kontratuaren xedea da Hernaniko edateko ur hornidura sarean emaria neurtzeko ekipoak instalatzeko beharrezkoak diren obrak egitea.

Hernaniko udalerriko ur hornidura sarea garatzeak hainbat hamarkada behar izan ditu, eta horietan zehar emaria neurtzeko ekipoen instalazio progresiboa egin da. Gehienak ur-biltegietan daude, baina sarean ere jarri izan dira beste zenbait gailu isolatu ere.

Emaria neurtzeko ekipoak dauden sarearen sektoreetan, emariak ezagutzeko aukera dago eta, horrek, sarearen zati horren funtzionamendua eta kontsumo-patroiak behar bezala definitzeko aukera ematen du. Hala ere, udal-sarearen zati handi bat sektorizatu gabe dago oraindik, eta, horregatik, batzuetan zaila izaten da eman daitezkeen anomaliak antzematea eta mugatzea.

Adierazitakoagatik, uraren zikloa digitalizatzeko Berreskurapen eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren (PERTE) esparruan emandako finantzaketa aprobetxatuz, sarean dauden neurketa-ekipoen kopurua handitu nahi da, sarearen funtzionamenduari buruz eskuragarri dagoen informazioa zabaltzeko.

2. LANEN DESKRIBAPENA

Obren helburua sei neurketa-ekipo berri instalatzea da.

Sarean eskuragarri dagoen sarearen informaziotik abiatuta, 150 mm-ko diametroko lau ekipo eta 100 mm-ko bi jartzea aurreikusten da.

- 150mm-ko kaudalimetro edo emari-neurgailuak
    - Akarregi Poligonoa
    - Eziago Poligonoa
    - Ibarluze Poligonoa
    - Lastaola Poligonoa

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

- 100mm-ko kaudalimetro edo emari-neurgailuak
    - Antziola Auzoa, 116
    - Jauregi Bailara, 29

Aurreikusitako instalazio-punturen batean instalazioa egiteko zailtasunak badaude, antzeko ezaugarriak dituen beste batetara aldatuko da.

Emari-neurgailuak instalatzeko oinarrizko eskema hau da:

- Brida-entxufea bi ertzetan, kanalizazio nagusiaren diametroarekin.
- Giltza edo balbula bi ertzetan, hodiaren diametroarekin.
- Brida-brida mahukak, gutxieneko 5 eta 3 diametroko tartea ziurtatzeko.
- Desmuntatzeko karrete edo txirrika teleskopikoa.
- Siemens-en MAG 8000 emari-neurgailua, edo baliokidea, hodiaren diametroarekin.

Aukeratutako emari-neurgailuak bateriarekin funtzionatzen du, beraz, datuak denbora errealean ematen ditu. Emari-neurgailua Microcom-en Nemos 203+ dataloggerarekin, edo baliokidearekin, lotzea aurreikusi da. Datalogger horrek ere bateriarekin funtzionatzen du.

Alde batetik, emari-neurgailua eta desmuntatzeko txirrika 100x100 cm-ko barne-neurria izango duen hormigoi armatuzko kutxatila batean kokatuko dira, ireki ahal izango dena, eta D400 klaseko tapa izango duena. Bestalde, balbulak kutxatilatik kanpo geratuko dira, eta tranpiloien bidez eragingo zaie.

Instalazioak egiteko behar diren ur-mozketak behar besteko aurrerapenarekin adostuko dira udal-brigadarekin.

3. KALITATE-KONTROL PLANA

Enpresa esleipendunak Hernaniko Udalerrian Uraren Kudeaketa Arautzeko Udal Araudian zehaztutako saiakuntzak eta haiek egiteko maiztasunak bete beharko ditu.

Esleipendunak saiakuntza guztien kostuak beregain hartuko ditu. Izan ere, kostu horiek kontratatutako prezioen barne daude aurrekontuaren %2ko mugara heldu arte. Hala ere, ezingo dira kalitate-kostu bezala

ondorengoak onartu (hauek esleipendunaren zeharkako kostuak direlako, ez egindako lanarekin zuzen lotutakoak):

- Edozein material mota onartzeko aldez aurretik egin beharreko edozein saiakuntza.

- Pleguan adierazitako mugak edo baldintzak betetzen ez dituen edozein saiakuntza, hau da, saiakuntza gainditzen ez dutenak.

Lanen zuzendaritzak, aurretik adierazitako kalitate-kontrol planeko saiakuntzez gain, beste saiakuntza osagarriak ere agindu ahal izango ditu aurretik egindakoen emaitzak egiaztatzeko. Horiek horrela, lanen zuzendaritzak bere iritziz beharrezkoak diren saiakuntza osagarriak agindu ahal izango ditu kalitate-kontrola bermatzeko, eta horrela izanez gero, esleipendunak beregain hartu beharko du haien kostua aurrekontuaren %1ko mugara iritsi arte.

4. SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Esleipendunak urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua bete behar du; dekretu horretan, eraikuntza lanetan bete beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun neurriak ezartzen dira. Horretarako, segurtasun eta osasun azterketa ez duten lanak direnez, egingo diren lanen arriskuen ebaluaketa aurkeztu beharko du aldez aurretik, edota segurtasun eta osasun plana, hura beharrezkoa izanez gero. Nolanahi ere, lanak hasi aurretik, sustatzaileak izendatutako segurtasun eta osasun koordinatzaileak arriskuen ebaluaketa edo plan hori onartu beharko du.

Arlo honetako kostuak aurrekontuko gastu orokorren barne daude, alegia, ez dago kostu horientzat bestelako partida berezirik. Lanak egiten diren bitartean trafikoa desbideratzeko eta trafiko aldakorra mantentzeko beharrezkoa den behin-behineko seinaleztapen guztia ere aurrekontuko prezioen barne dago.

5. HONDAKINEN KUDEAKETA

Esleipendunak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua bete behar du. Dekretu horretan, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen da.

Arlo honetako kostuak aurrekontuko gastu orokorren barne daude, alegia, ez dago kostu horientzat bestelako partida berezirik.

6. EXEKUZIO-EPEA

2 HILABETEKO EPEA ezartzen da lan guztiak amaitzeko.

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

7. AURREKONTUA

Txosten honetan zehaztutako lanen aurrekontua 87.964,80 €-koa da (106,437,41 € BEZ barne).

8. PLANOAK

Txosten honen amaierako eranskin batean egin beharreko lanen kokapen-planoak daude.

Hernanin, 2026ko otsailaren 9an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Firmado digitalmente por ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Fecha: 2026.02.09 13:39:58 +01'00'

Herri-lanak Saileko arduraduna

1. ERANSKINA: AURREKONTUA

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

2. ERANSKINA: PLANOAK

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus